

MATERIALISMO HISTERIKOA

Noren mende



UXUE APAOLAZA LARREA

Udako despiste informatiboan, berri batek erakarri du nire arreta, hauteskunde kanpainetikiko adikzioaren ondorioz, Argentinako gorabeherei adi nabilenez. Argentinak yuaretan ordaindu omen dio NDFri, orain ordaintzea zegokion zorraren zati bat. "Zegokion" horrek barnean daraman subjektibotasun guztia kontuan hartuta. Batzuek AEBen alde egin zuten Argentinaren alde baino, beren garaian (beren garai guztietan egiten duten eran, izan Menemek, izan Macrik: alderdi desberdinekoak izanagatik, berekoak diruditenak), eta orain kontuak, BRIC ametsa gero eta urrunago. Dolarrak falta. Yuanak aukeratu. Kontua da dolarra AEBetako txanpona dela, yuana Txinarena, eta, azken aldian, bi herrialde horien izenak elkarren segidan irakurtzeak suspentse musika ekartzen du gure belarrietara.

Nork ematen digu beldur handien? Hori ere landuta dago ziur asko, jakin gabe nonbait baikalde, eta nahi gabe, ez dugu beste nonbait egon nahi. Noren mendeko garen ebatzi nahian pasatzen dugu bizitza. Merkatua librea omen den mundu honetan, dardara egiten dugu AEB ez den potentziaren bat neurritz kanpo indartzen bada; alegia, ekonomikoki itzal luzeegiz dabilenari akats demokratikoak ikusten amaitzen dugu. Huawei, Tik Tok, Trumpen zergak... dena da onargarria, aberastea demokratikoa baita, konpetentzia nori egiten zaion... orduan ez, noski; eta gainera ez dugu zerraldorik ikusten. Zerraldoak Txinari egozteko tentaldiak izan ziren, asko, pandemia garaian (Argentinan Sputnik txertoaren alde egin zuten). Eta zerraldoak, ikusi, gerra deklaratueta ikusi ditugu, Ukrainan, kasu. Txinak atzera egin duenetan lasaitu gara gerretan, eta aspaldi da beldurtzen garel. Gogoan dut Belgraden, Jugoslaviako gerran, Txinaren enbaxada bonbardatu zuten eguna.

Ukrainan Hitler aipatu da, Naziak, Bigarren Mundu Gerraren osagai pseudoideologiko sinplifikatuak ekarri nahian; baina, agian, Lehen Mundu Gerra aipatu behar genuke gehiago. Merkatu librean, konpetentzia ez delako azkartasunean oinarritzen, armek ezartzen dute zer erosi nahi dugun ere. Ukrainan Txina, Argentinan yuana... Eta zer desiratu behar genuke? Noren mende egon nahi dugu? ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



ADUR

Matxismoa

47 urteko emakume bat labankadaz hil zuen 51 urteko gizonak, Iruñean. Uztailaren 1ean gertatu zen, Iruñeko Anayak tabernan; bertako bazkide eta bikote ziren gizona eta emakumea. Hilketak matxista salatzeak elkarretaratze jendetsuak egin dituzte.

EHZ

12.000 ikus-entzule eta 500 laguntzaile bildu ditu aurten EHZ festibalak Irisarriko plazan eta belardian. Irisarri agurtu eta datozen hilabeteetan erabakiko dute zein izango den EHZren hurrengo eszenatokia. "Herria eraikitzen segituko dugu".

Mugak

2021eko urtarrilean itxi zuen Frantziako Gobernuak Irun eta Hendaia herrien arteko oinezko pasabidea. Erakundeek, elkarteek eta gizarte mugimenduek maiz egin dute irekitzeko eskaera, eta oraingo honetan baiezkota eman du Frantziako Gobernuak.